

Erromeria



Joxemari CARRERE
Ipuin kontalaria

Bi enara hegan ari dira Lacomandeko elizaren abside erromanikoan. Bitartean, Michel Hindenochek kontatzen dihardu, zitararen doinua lagun. Biar-noko herri txiki honetako eliza beteta dago, baina bestelako liturgia baten sinestunekin, enaren hegaldi urduarik kontalariaren unibertsoaren parte bihurtu direlarik; eta ahots sakon eta samurrak otoiitzik gabeko mundu magikoan barnertzen ditu ipuinzaleak. Egunean zehar pasatu den La Fête du Conteren azken ekitaldia

da. Badira hamar urte Chaîne de Conteurs Pyrénéés taldeak antolatzen duela jai hau, eta, funtsean, kontalarien eta kontazaleen elkarretaratzea da. Ipuinen erromeria moduko egitea da ideia. Eguerdian elkartu, nahi duenak ipuinak kontatu, gero bazkaldu bakoitzak ekarri duena besteekin konpartituta. Eta arratsaldean kontaketa gehiago eta musika eta herriko zelai txikietan siesta egin, eta bertako ardoak dastatu... Erromeria giroa, egun-pasa polita egiteko aukera.

Ederrak dira halako ekimenak. Kontalari-

tzak beharrezkoak dituenak, bere izatea sozializatzeko, ezagutarazteko, kontalarien arteko harremanak bideratzeko, zaleekin konpartitzeko. Egungo garaietan badirudi kontalaritza bihurtzen ari dela haur gero eta txikiagoen aisialdia okupatzeko jarduna, edo bestelako ekitaldietako egitarau zabal baten barnean, haurrentzako "zerbait" egiteko aukera, betelana. Beste askok bezala, Hindenochek kontalaritzaren gainean dioena gogoan hartu behar: «Kontatzea Hitzaren Artea da, Poesia bezala. Baina bestelako hitza da». Erromerian ospatzeko hitza,

Bere lehenengo liburua du Asier Osinaldek «Baina ez lukete han egon behar», hamabi ipuinek osatutako bilduma. Argazkiak, ispiluak eta begiak muga eta zubi egin ditu idazle donostiarrak, jatorri eta izaera desberdinetako per-

tsonaiaik haien bizitzetako egoera zehatzetan kokatuta. Independenteteak badira kontakizunak, nahiz guztiek baduten antzekotasunik edo harilkatzeko arrazoirik. Horietako bat, Ibar izeneko leku alegiazkoa.

Azaletik muinera, bidaiia bat

Ariane KAMIO | DONOSTIA

Asier Osinalde (Donostia, 1975) ez da zinema zuzendaria, nahiz film laburrik egin duen; ez da poeta, nahiz poesia idatzi izan duen; ez da musikaria, nahiz abestiak egin dituen; ez da txirrindularia, nahiz bizikleta gainean kilometro mordo egin duen –askotan bidaiatzen–. Bere lehenengo liburua du idazle donostiarrak "Baina ez lukete han egon behar" (Erein), eta bertan nabarmena da egin duen baina ez den gauza horietako guztieta-ko zerbait.

Hamabi ipuinetako bilduman aurkitu du erpin desberdinetako isla, hain zuzen, ispilua, begiak eta argazkiak muga eta zubi gisa erabilia. «Ez dakit zuei gertatzen zaizuen, baina niri askotan gertatzen zait argazki baten aurrean jarri, edo hobeto esanda, erretratu baten aurrean jarri eta pentsatzea: 'Bale, ondo dago, baina nor da argazkian azaltzen den hori? Are gehiago, nor zen erretratuan azaltzen den hori argazkia atera zioten egunean? Zer zuen buruan? Zer sentitzen zuen?'». Horixe izan du helburu Osinaldek ipuin bilduma honetan, kanpotik barrurako bidaiia bat egitea, azaletik muinera. Argazkiak, ispiluak, begiak. «Horiek dira kanpoko eta barneko munduaren arteko muga, eta, era berean, hiru elementu horiek berak dira bi munduak lotzen dituzten zubiak». Bilduma honetan jatorri eta izaera desberdinetako per-

tsonaiaik baliatu ditu; badira jostunak, badira argazkilariak, enpresaburuak, futbol jokalariek, Erasmus ikasleak, heriotzari izkin egin nahi dion lorezaina... Eta haiengana ahalik eta gehien hurbiltzeko ariketa egin du.

Narrazio guztiek pertsonaien kanpoaldean dute abiapuntua, baina haien barnealdea haztatzea izan da ipuinen ernamuina. «Hortxe dugu gordeta inportatzen zaigun guztia, hortxe dauzkagu

giltzapetuta gure buruarekin soilik partekatzen ditugun sekretu eta esperantzak, inori sekula aitortuko ez dizkiogun bekatu eta miseriak».

Barnealdeko bidaiia horretan, pertsonaia bakoitza bere bizitzako egoera jakin batean kokatu du Osinaldek. «Haiek ere saiatzen dira egunerokoan aurrrera egiten, beren atsekabe eta frustrazioekin, beren esperantza eta ametsekin, beren sekre-

tu, beldur eta ahuleziekin. Azken batean, guztiok bizi garen errealtate likido eta ezegonkor honetan orekari eusten saiatzen dira; eta batzuek alanbrearen gainean irautea lortuko badute ere, beste batzuk erori egingo dira; badaude, halaber, burdinazko harietan betiko zintzilik geratuko diren beste batzuk, baita alanbrearen gainean dabilzanik konturatu ere egiten ez direnak ere. Finean –aipatu du

idazleak–, denak daude aurrez imajinatu ezin zuten egoera batean harrapatuta, eta ez dakite patua izan den, kasualitatea, edo egunero hartzen ditugun erabaki ustez garrantzi gabeko egoera horretara eraman dituzten. Baina ez lukete han egon behar».

Elkarrekin harremanetan

Liburuko pertsonaiaik eta haiek estaltzen dituzten ipuinetako geruzak independenteak dira, *a priori*. Baina, «ezer ez da erabat zurruna, ezer ez da erabat estankoa», eta, ondorioz, ipuinek elkarri eragiten diote, «pixkanaka arma arma sare lauso bat osatuz eta bildumari nolabaiteko osotasuna emanez». Horren adibide izan daiteke, esaterako, Ibar alegiazko lekua.

Ipuin gehienetan hirugarren pertsona nagusitzen bada ere, kontatzeko manera monotoniatik urrundu nahi izan du Osinaldek, eta lehenengo eta bigarren pertsonak ere sartu ditu. Narrazioetan ere egin ditu aldaketa zenbait. Kontakizun linealak tartean badaude ere, kronologia aldatzeko hautua intentziaz hartu du. Hartara, badira erditik hasten diren istorioak, bukaeratik hasten direnak, amaierara arte elkartzen ez diren istorio paraleloak, espiral batean formari jarraituz muinera gerturatu eta urrutiratzen direnak, egunkari moduan idatzitakoak, gutunari bidezkoak... Markotik at geratu dena bilatzen dutenak, orobat.



Asier Osinaldek barne bidaiia bat proposatzen du bere hamabi ipuinetan. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS